

6. Kapitalismoaren kritika, hizkuntzaren filosofia, totalitarismoa eta holokaustoa

Frankfurteko eskola, Popper, Habermas,
John Rawls, Wittgenstein, Txillardegui

Hannah Arendt

* Kapitalismoaren Kritika: Karl Marx-en pentsamendu iraultzailea eta dialektika Frankfurteko eskolan.

- Karl Marxek Kapitalismoaren kritika erradikal bat abiatu zuen ikuspegi materialista eta historiko batetik.
- Sistema kapitalistak desberdintasun ekonomikoak eta alienazioa sortzen ditu, burgesiak proletarioen esplotazioan oinarritzen delako.
- Bere proposamen iraultzaileak ekoizpen-bitartekoen jabetza pribatua deuseztatzea eta klase-gabeko gizarte bat eraikitzea.

Frankfurteko Eskola: Habermas

Frankfurteko eskola 1920 eta 1930eko hamarkadetan sortutako **eskola marxista** da. Eskolaren xedea positibismoak eta materialismoak kutsatu gabeko marxismo bat garatzea izan zen, eta kultura lehenetsiz (marxismoan gainegitura edo superestruttura deitzen dana) gizartearen aldaketan. Aldi berean, gizarte industrialak eta bere arrazoi instrumentala gogor kritikatu zuten. Eskolak sortutako ekarpenei eta korronten multzoari teoria kritikoa deitu zaio. Eskolako filosofo nabarmenak izan ziran Adorno, Habermas eta Marcuse.

Jürgen **Habermas** alemaniarra (1929- ????) «ekintza komunikatiboaren teoriaren» aita da. “Azken marxista”. Habermasen ustez, filosofia giza arazoan hondarrera, errealitatera, jaitsi behar da.



Zientziaren filosofia (Epistemologia)

Metodo zientifikoa definitzen **Vienako Zirkuluak**(1921-1936): neopositibismoa bultzatu zuen. Egiaztaionismoa: (hipotesiak, legeak, teoriak...), indukzioa...

Karl Popper. Vienako Unibertsitatean ikasi eban. Hitlerrek Austria anexionatu ondoren Zeelanda Barrira erbesteratu zan (1937) Vienako Zirkulutik arinago aldendu zan.

- **Faltsagarritasuna:** *“Ikerketa zientifikoaren logika”* (1934) liburuan, neopositibismoa zalantzan jarri eban. Hipotesi bat hainbat esperimientuetan egiaztatu arren, ezin izango dogu inoiz bere baliozkotasunaren erabateko ziurtasuna izan. Ezagutza zientifikoak behin-behineko balioa dau. Zientzaren helburua ezarritako teoria zientifikoak faltsatzea da. Hori da zientzia aurrera egiteko modu bakarra.

- **Gizartearen teoria:** *“Gizarte irekia eta haren etsaiak”* (1945), Platon, Hegel edo Marxen teoriak gogor kritikatzan ebazan nazismoa eta boltxebismoaren oinarritzat hartuz. Gizartean etorkizuna teleologikoki planteatzeagaitik, orden totalitario bat bultzatzen. Demokrazia liberala justizia modu baketsuan gauzatzeko gobernu-modu bakarra da.

* Estatuaren interbentzionismoa: Popper-Habermas eztabaida eta John Rawlsek ongizate-estatuan izan duren eragina.

- **Popperrek filosofia historiko deterministak kritikatu ditu**, Marxismoa kasu, totalitarismora eramateko arriskua duelako. **Gizarte ireki eta plural baten alde egiten du.**
- **Habermasek, aldiz, estatuaren interbentzio aktiboa defendatu du**, berdintasun erreala bermatzeko. **Ekintza komunikatiboaren teoria** oinarrituta, elkarrizketa eta adostasunaren bidezko arrazionaltasuna proposatu du, askatasuna eta justizia soziala babesteko.
- **John Rawlsek liberalismo berdintzailearen barruan *Justiziaren teoria* (1971) lanean**, “justizia berdintasun gisa proposatu du: desberdintasunak onargarriak dira soilik kaltetuenen mesederako badira. Ongizate-estatuaren garapenean, birbanaketa justifikatuz oinarri arrazional eta demokratiko batetik.

Arrazoimen ilustratuaren krisialdia eta XX. mendeko totalitarismoak (Erantzun eredu bat)

Ilustrazioaren dialektika (1944) liburuan, Adornok eta Horkheimerrek, **Ilustrazioaren kritika** bat egiten dute, askapen arrazional helburu zuen Ilustrazioaren proiektua **dominazio-tresna** bihurtu zela. Gizarteak askatzeko gaitasuna galdu du eta etekinaren preso bizi da, deshumanizazioa ekartzen.

Gainera, masa-kulturaren kritika zorrotza egiten dute, **industria kulturalak** elikatzen duena. Masa-kulturak pentsamendu homogeneizatu egiten du, sormena mugatzen, kontzientzia kritikoa indargabetzen, konformismoa eta pasibotasuna sustatzen. Komunikabideek kontrol sozialerako mekanismo eraginkorrak bihurtu dira.

Arrazoimen ilustratuaren krisialdia eta XX. mendeko totalitarismoak (Erantzun eredu bat)

“XVIII. mendeko Ilustrazioa, tradizioaren eta erlijioaren ideia dogmatikoak atzean utzi eta **arrazoimenaren erabilera askea** aldarrikatuz, aurrerapenaren ortzi-mugarantz abiatu zen. Horren adibide garbia da ***Kantek Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna*** obran adierazten duena: Ilustrazioaren leloa «**Sapere aude**» da. Ilustratuen ustez, arrazoimena modu askean erabiltzeak **aurrerapen** zientifikoa, politikoa eta etikoa ekarriko zuen eta, ondorioz, gizartea **utopiara gerturatuko** zen.

Jakina, ez zen horrelakorik gertatu. **XX. mende hasieran bi mundu gerrek** –bereziki bigarrenak– bildu zituzten **bonba atomikoak eta heriotza-esparruek** argi utzi zuten gizateria utopiatik baino desagertzetik hurbilago zegoela. **Noiz eta nola bilakatu zen amets ilustratua xx. mendeko gehiegikeria?**



XX. mendeko 30eko hamarkadatik aurrera, **Frankfurteko Eskola**k (Alemaniatik ihes egin eta oinarri marxista eta weberiarra zuten intelektual judutarrek sortutako pentsamendu korrontea) erantzuna bilatu zion arazo horri. Frankfurteko Eskolako autoreek Max Weberren **arrazoimen instrumentalaren kontzeptua berrinterpretatu** eta honakoa proposatu zuten: Ilustrazioak **aurrerapena**ren baitan **natura menderatzea** bilatu zuen, gizakiaren bizitza hobetu nahian.

Gizakien eta gauzen (naturaren) harremanen logika horretan, arrazoimen instrumentala aplikatzen da. **Natura bitarteko bat da giza helburuentzat, eta bere gaineko erabakietan efizientzia baloratzen da.**

*Ilustrazioak, ordea, ez zuen galarazi arrazoimen instrumentalak bere esparrutik ihes egin eta gainontzekoetan ere nagusitzea. Hau da, gizakia/natura esparrutik gizakien arteko (subjektu/subjektu) harremanak zuzentzera igaro zen, **gizakia objektu bilakatuz, bere duintasuna lapurtuz** eta, hitz bakarrean, **alienatuz** (tradizio marxistako eta hegeliarreko kontzeptua).*

Behin gizakia gizarte sistemaren torloju bilakatuta (Adorno), behin gizakia gizarte sisteman betetzen duen funtziora murriztuta (Horkheimer), **botereak gizakiaren gaineko erabakietan efizientzia bilatuko du**. Horrela ulertuko dira judutar auziaren aurrean heriotza-esparruen sorrera edota japoniarren erresistentzia amaigabearen aurrean egindako bonbardaketa atomikoak. ***Frankfurtekoen ustez, amets ilustratuak totalitarismoaren tranpa zuen bere baitan.***”



“El sueño de la razón
produce monstruos”

Francisco de Goya
(1799)

“Los desastres de la
guerra” (1810-1815)



* Habermas: Modernitatearen erreforma, haustura pentsalarien aurrean.

Habermasen ustez, modernitatea ez dago behin betiko haustuta.


Ilustrazioan sortutako **proiektu moderno**a (arrazoia, askapena, autonomia eta aurrerapena) **osatu gabe dago, baina ez da porrot egin** duen zerbait.

Posmodernoek diote arrazoiak huts egin duela eta “metanarratibek” (aurrerapena, askapena) balioa galdu dutela. Habermasek, ordea, **hori akats bat dela** dio: **arazoa ez da arrazoia bera, baizik eta arrazoia instrumentalean** (teknika, kontrola) murriztu dela. **Horren aurrean**, Habermasek **arrazoimen komunikatiboa** proposatzen du:

- Elkarrizketan eta adostasun arrazoituan oinarritua
- Hizkuntzaren bidez sortzen den arrazionaltasuna
- Justizia eta askatasuna kritikoki defendatzeko gai dena

Ondorioz: modernitatea ez da baztertu behar, baizik eta kritikoki berreraiki. Proiektu moderno a amaitu gabe dago, ez suntsituta.

* Arazo filosofikoak hizkuntzaren analisia kontutan hartuta: Ludwin Wittgenstein eta filosofia analitikoa



Filosofia analitikoa: Wittgenstein

Filosofia analitikoa Ingalaterran XX. m. hasieran hasi zen, filosofia tradizionalaren aurka, ez dute filosofia espekulatzailerik nahi; idealismo neohegeliarraren aurkako dagoz. Errealak ez da pentsamenduak sortzen duena, gertakariak baizik: aurrean duguna, pentsamendutik independentea. Filosofia enpirista du oinarri, zientziarekin batera.

Hizkuntza naturala aztertzen dute, errealitatea ulertzeko erreferentzia nagusitzat hartuta. Filosofiaren objektua hizkuntzaren analisia da: **“ez dago arazo filosofikorik, hizkuntza-arazoak baizik” Wittgenstein**

Filosofia honen metodoa ez da sintetikoa (subjektuaren eta predikatuaren batasuna); analitikoa baizik (osotasun baten deskonposizioa). Unibertsoa ez da osotasuna, zatiketa baizik, eta elementuen bidez eratzen da, atomoen bidez.


Jarrera **antimetafisikoa**. Zientifikoki egiaztatu daitezkeen enuntziatuek soilik dute zentzurik; hori enuntziatu zientifikoek soilik betetzen dute, beraz, ukatu egiten dituzte enuntziatu metafisikoak; faltsuak eta zentzugabeak dira.

* Hizkuntzaren filosofia: Euskaratik abiatutako analisia, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”

- **Hizkuntza guztiak egituragile inkontzienteak dira.**
- Dagoena kaotikoa da, eta kaos hori taxutzeko beharra dagoenez hizkuntzak egiten du taxutze-lan hori.
- Poetak poema bezala sortzen du herriak hizkuntza, eta hizkuntzak pentsamendua eta mundu-ikuskerara baldintzatzen ditu.
- Hizkuntzen eraginez ikusten ditu desberdin gauzak japoniarrak eta euskaldunak.

UNESCOk jakinarazi du 7000 hizkuntza inguru dauzkagula munduan, eta mendea amaitu baino lehen 3000 galduko direla.

Ziurtzat jotzen du Txillardegik euskeraren desagertzea, lan militarre gogorik eta baliabide guztiak euskeraren alde jarriko dituen euskal estaturik gabe.





+

- Hanna Arendt en filosofia
- Existenzialismoa: Heidegger, Jean-Paul Sartre
- Feminismoa: Simone de Beauvoir eta Judith Butler

Hannah Arendt (1906-1975)

- Alemanian jaio zen familia judu batean.
- Unibertsitatekan kanporatu zuten judua izateagatik (1933)
“Heidegger, gezurteri handia” 📛
- 1937. urtean nazional sozialismo erregimenak hiritartasuna kendu zion, aberribagea geratu zen 1951. urtera arte.
- II Mundu Gerra amaitu eta gero Alemaniara bueltatu zen.
Unibertsitateko irakasle Estatu Batuetan.
- *Totalitarismoaren jatorria (1951), Giza kondizioa (1958) eta Eichmann Jerusalemen, Gaizkiaren banalitatea (1963).*



Totalitarismoaren jatorria: gaitz absolutua.

- Bigarren Mundu Gerran arau guztiak apurtu ziran: “**Erabateko gerra**” izan zen. Biktimarik handienak zibilak izan ziren.
- **Ikara-erregimina** ezarri zen Gestapo eta SS-en bidez.
- Konzentrazio-esparruak, deuseztatze-eremuak: Dachau, Mauthausen, Auschwitz-Birkenau, Treblinka (zuzenean eramaten zituzten gas-geletara) 6.000.0000 hildako.
- Komunistek be erabili zituzten: Kolyma eta Solovki uharteetan. Gehi Gulag-ak. 1.606.748 hildako.
- Hannah Arendtek nazismoa eta stalinismoa parekatzen ditu.



Totalitarismoaren jatorria

Antisemitismo politikoa. Eskubideak galtzeaz gainera, gizartetik kanporatzea.

Inperialismoa. Kolonialismoa. Bortizkeria populazio talde handi baten kontra. “Hilketa administratiboak” Ad. Leopoldo IIak **Kongon**. Kolonietako populazioari ez bazitzaion herritartasuna aitortzen. Imperialismoak arrazakeria sortu zuen konkistak justifikatzeko, arrazoi biologikotik.



III.Reichek egin nahi zuen Europako mapa etniko bat eta “jatorrizko” natura bat ezarri.

Estatu-nazioaren endekatzea

“Estatu-nazio” kontzeptuak kontrakoak diren bi adiera hartzen ditu:

- Estatua: izaki **ezberdinak** hartzen dituen marko legala.
- Nazio: **homogeneotasuna** (etnikoa, erlijiosoa, kulturala, linguistikoa ...)

Lehen Mundu Gerra ondoren zuzenbidetik kanpoko bi gizatalde: **aberrigabeak eta gutxiengoak**. Pertsona horiek ***prescindibleak*** ziran. **Deuseztaze-eremuak** izan ziren **“irtenbidea”**.

- Aberrrigabeek, errefuxiatuek eta iheslariek ez daukate **“eskubideak izateko eskubidea”**.




El derecho a tener derechos o el derecho de cada individuo a pertenecer a la humanidad debería ser garantizado por la misma humanidad.

(Hannah Arendt)

- “Gizakiaren larrugorritasuna”, eurentzat ez dago Giza Eskubideen Adierazpena.

Gizarte totalitarioaren ezaugarriak

- Populazioaren konplizitatea **bortizkeriaren** onarpena.
- **Esparru publikoaren desegitea**. Kezka bakarra hurbileko segurtasuna edozein prezioan (konforta eta kontsumismoa).
- **Bizitza pribatua be suntsitzen da**.
- Pertsonak **bakartuta** bizi dira: “gure garaiko gaixotasuna”.
- **Komunitateko kidea izateko sentimendua galtzea**.
- **“Gaitz erradikala”** Inor ez da beharrezkoa, denak ezabatu ahal dira.



Botere totalitarioa

- Erabateko ikara ezartzea. Ez du bukaerarik.
- Giza aniztasuna ezabatzea du helburu.
- Horretarako talde espezializatuak ezartzen dira: SSak eta Gestapo
- Bortizkeria hori ez dago legetik kanpo.
- Legea bera da ikararen adierazpena.



Heriotza-eremuak

Lehenbizi lortu nahi dena da pertsona juridikoaren heriotza: **“Eskubideak izateko eskubidea” ukatuz.**

Bigarrenik **persona moralaren heriotza**. Elkartasuna desegin behar da. Bortizkeria onartzen da.

Azkenik, gizakiaren **banakotasuna suntsitzen** da: “heriotza-lantegietan”. Presoak oinarrizko sentazio fisikoak (Hotza, gosea, beldurra...) besterik ez zituzten zerbait ziran. Eta heriotza anonimoa. Dena antolatuta ahaztuak izateko.



Gaitz erradikala

- Totalitarismoak praktikara eroan zuen “dena posiblea da” adierazpena.
- Ezinezkoa errealitate bihurtu zen: “Gaitz erradikala”.
- Ideologia batek gizakiak zerbait “soberakin” bihurtzea, ezabagarriak.
- Gizatalde batzuetan gizatasun-zantzu guztiak ezabatzea.
- Erabateko gaitza, Hannah Arendten ustez, ezin da barkatu.

Giza bizitzaren baldintzatzaileak: landu, fabrikatu, ekin.



- “*Giza kondizioa*” liburuan Arendtek gizakien oinarrizko hiru jarduerak aztertzen ditu, **bizitza aktiboa** osatzen dutenak: **lana, fabrikazioa eta ekintza**.
- Helburua giza jarduera zertan datzan azaltzea (**bizitza kontenplatiboaren aurrean**).

- Arendten ustez, **lantzea** bizitzarako baldintza da zentzu biologikoan, eta gizakiarentzat beharrezkoa denari egiten dio erreferentzia, hau da, **maila biologikoan irauteko beharrezkoa denari.**



- **Fabrikatzea** sormena da, gizakiak objektuen bidez mundua sortzeko daukagun modua. **Gauza artifizialen mundua**, naturatik bereizten gaituena.

Objektu horiek ez dira gure beharrian biologikoak asetzeko, baizik eta bizi garen mundua eraikitzeko (artifizialtasuna, naturaren kontrakoa).



- Azkenik, **ekintza** aniztasunari lotuta dago, **besteen artean nola bizi** garen. Horregatik, **ekintzak politikari, espazio publikoari eta komunitate politikoari** egiten eutson erreferentzia.
- Ekitea erabat hedatzeko, **hiru baldintza** bete behar dira:
 - gizakiak **berdinak** direla onartzea (aniztasunean)
 - **adierazpen askatasuna**
 - **mundu komunaren zaintza**



Vita activaren esparruak: pribatua, publikoa eta soziala.

EKINTZAK	ESPARRUAK
LANDU	PRIBATUA
FABRIKATU	SOZIALA
EKIN	PUBLIKOA

“Aro Modernoan espazio publikoaren atzerakada geratu da, batez be arlo sozialaren sorreraren ondorioz.”




Pribatua	Soziala (Aro Modernoan)	Publikoa/ Politikoa
Oikos (Etxekoa) lan arekin lotuta, bizitzako beharrak asetzearen mende dago. Han ez dago askatasunerako lekurik.	Botereak askatasuna, hitza eta ekintza ahazten du. Politika ez da berdinen arteko interaziorako esparrua.	Polisa (Hiria). Espazio publikoan gizakiak ekintz arako eta elkarrizketarako gaitasuna hedatzen dute, berdinak diren esparru batean.

Arendentzat **espazio pribatuak eta publikoak** mantendu behar ditugu; totalitarismoaren kontrako antidoto moduan.

Esparru publikoa gizabanakoa **jaiotzeko** esparru bezala aldarrikatuko du Arendtek. (Heideggerren heriotza kontzeptuaren aurrean, Arendtek jaiotzea aldarrikatzen du: gizaki bakoitza berritasun bat, munduari hasiera bat...)

Eichmann Jerusalemen: 'Post scriptum' Testuari sarrera




Eichmann Holokaustoa diseinatu zuen **nazi** alderdiko kargu gorenetakoa zen. Gerra amaitzerakoan **Argentinara** egin zuen ihes, eta bertan **Mossadeko** komando batek bahitu eta **Jerusalemera** eroan zuen **1960**an.

Hurrengo urtean epaitu, erruduntzat jo eta heriotza zigorra ezarri zioten, 1962an gauzatu zena. **Hannah Arendtek** prozesuaren inguruko hausnarketa egin zuen ***Eichmann Jerusalem*** izeneko obran, eta polemika bizia sustatu zuen, bereziki, esparru israeldarrean.

Izan ere, epaiketaren aurkako hainbat arrazoi aurkitu zituen Arendtek.


Lehena, bazirela hainbat **arrazoi epaiketaren legitimitate juridikoa zalantzan jartzeko:**

- Israel sortu gabe egoan Eichmannek bere delituak burutzerakoan.
- Eichmannek ez zuen inongo deliturik burutu Israelen.
- Eichmann bahitzeak nazioarteko legeen kontra egiten zuen.



Bigarrena, epaiketa propaganda politiko moduan erabili zela. Israelen politikek eta inguruko herrialde arabiar musulmanekin izandako gerrek bere irudia zikindu zuten (kanpoan eta barruan). Horregatik, epaiketa herrialde judutarrek Holokaustoan zehar pairatutako jazarpen eta oinazeak azpimarratzeko aukera bezala tratatu zen. Ez zen Eichmannen aurkako epaiketa bat, alemaniar gobernu naziaren aurkako prozesua baizik, judutar herri guztiari egindako kaltearengatik.


1948ko Arabiar-israeldar Gerra



Suezko Gerra/Sinaiko Gerra (1956-1957)

Sei Eguneko Gerra (1967)

Antes y después de la Guerra de los Seis Días, 1967



Israeldarren ikuspuntu horrek atzean uzten zituzten **Nurenbergeko auziak (1945-1946)**, non ez zen herri judutarraren aurka egindako delitu espezifikorik aipatu.

Aldi berean, ez zen inon aipatu judutar agintari batzuek naziekin izandako kolaborazioa. Eichmannen kondena hasieratik jesarrita egoan.



Hirugarrena **agintari naziei munstro itxura ematearen mitoaren aurkakoa zen**. Eichmannek azterketa psikologikoak pasatu zituen epaiketaren aurretik, eta ondorioa garbia zen: **gizon normala zen**. Ez psikopata bat, ez pertsona azkarra. Normala. Bere pertsonalitate faltagatik, hainbat taldetan sartu zen, eta, alderdi nazionalsozialistan karrera egiteagatik, **agindu eutsiena egin zuen. Arendt Eichmannen antisemitismoa zalantzan jartzera iritsi zen.**



Liburuak sortutako iskanbilak **bigarren edizioan ‘Post scriptum’ kapitulua idatzarazi zion**, jasotako kritikei erantzuteko. Bertan, aipatutakoa laburtzeaz gain, azpimarratuko dau **Eichmann epaitu beharra egoala, baina berak egindako delituengatik**. Horren inguruan zera dio Arendtek: ez ‘estatu arrazoiak’ (gobernu nazian, basakeriak ez ziren salbuespen, lege baizik, heriotza esparruak ‘hilketa administratibo’ bilakatu arte) ez ‘aginduak jarraitzeak’ (ez zuen inperatibo kategorikoa jarraitzen) ez dute justifikatzen Eichmannek egindakoa; izan ere, **beti izan zuen aginduak ez betetzeko askatasuna**.

Eichmann Jerusalemen eta gaizkiaren banalitatea (Hutsalkeria)

“**Gaizkiaren hutsalkeriaz** ari naizenean, gertakari hutsen mailan ari naiz, juizioan oso nabarmena gertatu zen fenomeno bat azpimarratuz. Eichmann ez zen lago bat ez Macbeth bat, eta ezer ez zegoen haren burutik urrutiago, Rikardo III.aren hitzetan, “gaiztagin gertatzea” baino. Bere aurreramendu pertsonala zaintzeko zuen prestasun harrigarria salbu, hark ez zeukan ezertarako motiborik. Eta prestasun hori, berez, ez zen inondik ere gaiztoa; Eichmannek ez zuen bere gainekoa hilko haren postua heredatzeko. Eichmannek, *besterik gabe*, eta lagunarteko hizkeran esateko, *ez zekien zertan ari zen*. Irudimen falta horrixek esker, hain zuzen ere, izan zen kapaz polizia-galdeketa gidatzen zuen aleman judu baten aurrean hilabeteak eta hilabeteak emateko, gizon hari bihotza zabalduz eta behin eta berriz agertuz nola SSetako lotinant (teniente) koronelaren mailara baizik ez zen heldu, eta ez zela beraren errua izan mailaz igo ez bazuten. Teorian, nahiko ondo zekien zer zen hura dena, eta “gobernuak (**gobernu naziak**) agindutako balio-eskala berria” aipatu zuen auzitegiaren aurrean egin zuen azkeneko adierazpenean”.

Hannah Arendt, Eichmann Jerusalem, Post Scriptum.

“Eichmann ez zen ergela. Buruarinkeria hutsak —ergelkeriarekin inola ere ezin berdindu den gauza— bultzatu zuen garai hartako gaizkile handienetako bat bihurtzera. Eta hori «hutsala» baldin bada, baita xelebrea ere, munduko borondaterik onenarekin ere ezin baldin bazaio Eichmanni deabruzko sakontasunik egotzi, hala eta guztiz ere, ezin esan genezake gauza arrunta denik. (...). Errealitatetik horren urruti egotea, buruarinkeria hori, kaltegarriagoa izan daiteke giza-naturak, ausaz, berezkoak dituen sen gaizto guztiak batera hartuta baino, eta huraxe izan zen, hain zuzen ere, Jerusalem eman zen irakasbidea.“

Hannah Arendt, Eichmann Jerusalem, “Post Scriptum”.

Gaizkiaren hutsalkeria (Definizio eredu t. bat)

“Arrazoinamendurik gabe burututako gaizkia izendatzen duen eta gaizki absolutuaren posibilitatea ahalbidetzen duen kontzeptua da. Gaizkiaren hutsalkeriak botere politikoaren sistema batek gizakiaren sarraskia nola hutsaldu dezakeen deskribatzen du, bere ekintzen ondorio etiko eta moraletan pentsatzeko gai ez diren funtzionarioek burututako prozedura burokratiko gisa egiten denean. Eichmann buruzagi naziaren epaiketaren testuinguruan sortzen du Arendtek kontzeptu hori. Izan ere, Eichmannek sisteman milaka gizabanakoren suntsipena ekarri zuten aginduak emateko erosotasuna aurkitu zuen, estatu totalitarioaren logikaren barnean. Hausnarketa falta hori da, hain zuzen, Eichmann errudun bilakatzen duena. Estatuaren izenean eta legea jarraituz jokatu bazuen ere, askatasuna zuen erailketa administratiboen ondorioen inguruan hausnartu eta horien gaineko erabakiak hartzeko. Horri garrantzirik ez ematea eta gaizkia hutsalkeria bilakatzea da bere krimen handiena.”

Giza natura

(Definizio eredu t. bat)

“Arendtek giza natura eta giza izaera bereizten ditu. Alde batetik, sortzetikoa eta zalantzaezina den giza natura baten existentzia ukatzen du; aitzitik, giza izaeraren jarduerak existentziaren funtsezkotzat aurkezten ditu. Giza kondizioa liburuan, Arendtek gizakiaren oinarrizko hiru jarduerak aztertzen ditu, bizitza aktiboa osatzen dutenak: lana, ekoizpena eta ekintza. Helburua giza jarduera zertan datzan azaltzea da (bizitza kontenplatiboaren kontra). *Vita activa* eratzen duen ekintza bakoitza (landu, ekoitzi eta ekin) esparru desberdinetan gertatzen da: esparru pribatuan, esparru publikoan eta esparru sozialean”

Gaizki absolutua (Definizio eredu t. bat)

“Totalitarismoaren garapenak gizarte bizitzan duen ondorioa da. Adibide paradigmaticoana zien sarraski esparruak ziren. Totalitarismoaren helburua boterea mantentzea da, eta, horretarako, lege natural edo historikoaren aitzakiapean, gizabanakoa suntsitzen joango diren legeak aprobatuko dituzte. Hau da, Arendten ustez, totalitarismoak ekarri duen eta berria den gaitza: ideologia batek gizakia zerbait ‘soberakin’ bihurtzea, ezabagarria bihurtzea, deserrotzea. Totalitarismoak lortu zuen estatuek bere milaka hiritarrei gizatasun zantzu guztia lapurtzea legaltasunaren itxurapean.”

USaP eredu berria 2025eko proposamenak

Postmodernitatearen ezaugarri nagusia egia tradizional eta absolutuak baztertzea eta eremu guztietako perspektiben aniztasuna positiboki baloratzea da. **"Zenbat eta gehiago entzun, orduan eta nabarmenagoa zen bere hitz egiteko ezintasuna pentsatzeko ezintasunarekin, batez ere beste pertsona baten ikuspuntutik pentsatzeko ezintasunarekin hertsiki lotuta zegoela"** baieztatu zuen **Arendtek Eichmanni buruz**. Zein da pentsamendu kritikoaren balioa gaur egungo munduan?